

TicketBAI betebeharra arautzen duten foru arauak (partzialak).

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. TicketBAI betebeharra arautzen duten foru arauen laburpen eguneratuak jasotzen dira bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauak aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

EDUKIA

1. 2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarena.....5

122 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabili beharra.....	5
133. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.....	7
133 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabiltzeko obligazioarekin lotutako arau hausteak eta zehapenak.....	7
Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoaren ezarpena sustatzeko kenkaria.....	9

2. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua aldatzea. 11

22. artikulua. Betebehar erregistralak, formalak eta kontabilitatekoak.....	11
Hamargarren xedapen gehigarria. Zehapen araubidea.....	12
Hamaikagarren xedapen gehigarria. Sistema informatiko baten ezarpena sustatzeko kenkaria.....	12

3. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua aldatzea. 12

112 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabili beharra.....	12
117. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.....	13
117 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabiltzeko obligazioarekin lotutako arau hausteak eta zehapenak.....	14
Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoaren ezarpena sustatzeko kenkaria.....	16

4. 3/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena 17

Xedapen gehigarri bakarra. Foru arau honetan aurreikusitako tresna teknologikoak erabiltzeko borondatezko epea.....	17
Lehen xedapen iragankorra. Foru arau honetan aurreikusten diren lanabes teknologikoak erabiltzeko obligazioak ezartzeko egutegia.....	17
Bigarren xedapen iragankorra. Fakturazioaren kontrolerako euskarri gisa balio duten programa edo artxibo informatikoak eta erabilitako kodifikazio sistemak suntsitu, ezabatu edo manipulatzeko dakarren arau haustearen araubide iragankorra.....	17

3/2020 FORU ARAUAREN HITZAURREA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemak, herrialde garatu gehienen ildo beretik, informazio betebeharraren ugari hartzen ditu gaur egun barnean; zenbaitetan autonomoak dira obligazio horiek, eta beste batzuetan zerga jakin batzuk atxikitzeko edo kontuan sartzeko betebeharrarekin lotuta daude, zergapekoek gauzatzen dituzten tributu arloko eragiketa garrantzitsuei dagokienez. Obligazio horiek ezartzearekin batera, Zergen Foru Administrazioa behar dituen kontrol tresnez hornitu da arian-arian, lortutako informazioari erabilera hobea eman eta informazio horretatik emaitza onenak lortzeko, eta zergapekoen multzo osoari kontrol maila bera ezartzeko asmoz, edozein dela ere haien forma juridikoa edo irabazten dituzten etekinen tipologia, zergak ordaintzeko obligazioa zuzen betetzen dutela berma dadin.

Hala ere, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) «Salmenten ezabapen elektronikoa: diru sarrera fiskalenzako mehatxua» (2013) izeneko txostenean agerian utzi zuen bezala, iruzur fiskal mota bereziak hautematen ari dira zerga agintaritzak askotan: bereziki, diru sarrera urriagoak adieraztea salmenta elektronikoa ezabatuz eta gastu ugariagoak adieraztea faktura faltsuak erabiliz. Horregatik, soluzio teknologikoak ezartzeko gomendatzen die ELGAK zerga administrazioei, halako ihes eta iruzur fiskalak hautemateko eta galarazteko.

Azken urteotan, gomendio horiek gure inguruko herrialde askotan gauzatzen ari dira, bertan zerga sistemak ezarri direlako batik bat azken kontsumitzaileekin lan egiten duten enpresaburu eta profesionalen saltokietako terminalak kontrolatzeko; duela gutxi, horrela egin da, esate baterako, Austriar, eta aurreko urteetan, Suedian, Polonian, Portugalen eta Quebecen (Kanada), besteak beste.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Euskadiko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordeak –hiru foru ogasunek osatzen dute, Eusko Jaurlaritzaren koordinaziopean– Iruzuraren aurka borrokatzeko 2016ko Baterako Planean adierazi zuenez, azken urteetan tresna informatiko berezien erabilera ugari da jarduera sektore jakin batzuetan, salmentak ezkutatzeko eta kontabilitateko egoera orriak manipulatzeko. Horiek izaten direnez zerga aitortpenak egiteko oinarria, jardunbide horiei aurka egiteko baterako estrategia bat prestatzeko konpromisoa hartu dute, jarduera sektore jakin batzuetan fakturatzeko sistemen kontrola egiteko tresnen ezarpena aztertu ahal izan dadin.

Estrategia horrekin bat etorritik, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) kudeatzeko sistema berria ezarri zitzaion zergadun jakin batzuei –munta nahiko handiko eragiketa bolumenak dituzten pertsona juridikoak gehienak– berehalako informazio hornidura izeneko sisteman –BIH sisteman– oinarrituta.

Foru arau hau onartuta, Gipuzkoan aurrerapauso kualitatibo bat egiten da jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak tributazioa kontrolatzeko neurriei dagokienez, haien tamaina edo eragiketa bolumena edozein dela ere. Izan ere, zergadunak behartuta geratzen dira fakturazio sistemetan neurri teknologiko aurreratuak erabiltzera tresna teknologiko berriak baliatuta. Kontrol sistema horri TicketBAI sistema deitu zaio.

Horrela, ezartzen dituen betebeharraren ondorioz, TicketBAI sistema informatiko berriak ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien

osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzen ditu. Sistema hori Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Zerga Administrazioek elkarrekin sustatua da, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaz.

Aurrekoarekin bat etorriz, TicketBAI obligazio berria berdin konfiguratu eta ezartzen da bai sozietateen gaineko zergaren foru arauan eta bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauan, eta, igorpenez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan tributatzaren duten establezimendu iraunkorrei ere aplikagarri zaie.

lido horretan, pertsona fisikoen eremuan, jarduera ekonomikoak egiten dituztenak soilik izango dira obligatiodunak; pertsona juridikoen eremuan, aldiz, ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak egiten dituzten guztiek izango dute obligazio hori, alde batera utzita jarduera horiek ustiapen ekonomiko baten barruan edo eremu horretatik kanpo egiten diren. Horri dagokionez, ohartarazi behar da ezen entitate salbuetsiak eta irabazi asmorik gabeko entitateak ez direla behartuta egongo obligazio hori betetzera, eta partzialki salbuetsitako entitateak, berriz, errentak zerga oinarrian integratu beharra dakarten eragiketengatik bakarrik egongo direla horretara behartuta.

Foru arau honen bidez, aipatutako foru arauetan jasotzen da zer baldintza bete behar dituen sistema informatikoak ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak erregistratzean, fakturak edo eragiketak justifikatzen dituzten bestelako frogagiriak jaulkitzean, eta informazio hori Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzean. Sistemaren berezitasunak erregelamendu bidez garatu eta ezartzea gerorako uzten da.

Bai jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoek bai pertsona juridikoek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zerga Administrazioari helarazi beharko diete sistema informatiko horren erabileraren ondorioz sortzen den informazioa. Informazioa berehala bidali beharko da, eta, beraz, faktura jaulkitzearekin batera, hari buruzko informazioa jasotzen duen fitxategi bat bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Horrek esan nahi du, alde batetik, obligazioa eragiketaz eragiketa eta ia berehala gauzatuko dela, eta, bestetik, Zerga Administrazioak aldi berean izango duela informazio hori eskura, eta, zalantzarik gabe, horren ondorioz, etorkizunean modu erraz eta sinpleagoan bete ahal izango dituztela zergadunek beren zerga betebeharrak.

Alde horretatik, aipatzekoa da ezen, erregistroan bildu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazten zaion informazioaren barruan, eragiketa justifikatzen duen fakturan jasotako eragiketaren edo eragiketen xehetasunak agertuko direla, betiere datuen babesari dagokion mugarekin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babestu eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak, ezarritakoa betez.

Era berean, erabaki da etorkizunean erregistro bat egongo dela, bertan inskribatzeko bai aipatutako obligazioak betetzeko behar diren software bereziak eta bai horien garatzaileak. Erregistro horrek konfiantzazko hornitzaileen zerrenda bat jarriko du zergadunen eskura; izan ere, bertan izena emanda daudenek konpromisoa hartuta egon beharko dute, erantzukizunpeko adierazpen bat sinatuta, TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituen produktu bat emango dutela.

Nahitaezko sistema berri horren beste ezaugarrietako bat da orokortu egiten dela, halako moduz non, salbuespenez, zehaztuko baita zer kasu tasatutan geratuko den zergaduna –izan pertsona fisikoa izan juridikoa– ezarritako betebeharrak betetzetik salbuetsita. Salbuespen horiek erabatekoak izango dira batzuetan eta obligazio hori

osatzen duen elementuetako bat betetzera mugatuko dira beste batzuetan, baina, nolana ere, erregelamendu bidez garatuko dira.

TicketBAI sistemaren zutabeetako bat bezeroak edo eragiketaren hartzaileak hartzen duen eginkizuna da; izan ere, ematen zaion faktura edo tiket bakoitzean, QR kodeen irakurgailu baten bitartez egiaztatu ahal izango du faktura hori benetakoa den eta, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zaion. Horrela, zerga betebeharrak bete diren jakin ahal izango du.

Betebehar hori indarrean jartzeari dagokionez, adierazi behar da 2022tik aurrerako ondorioak izango dituela, baina, ezarri, pixkanaka pixkanaka ezarriko dela, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eta asistentzia teknikoa eskaini nahi duelako, zergadunak betebehar berrira ahalik eta erosoan eta errazen egokitu daitezzen. Helburu horrekin, foru arauak xedapen iragankor baten bidez ezartzen du egutegi hori erregelamendu bidez garatuko dela.

Era berean, sistemaren nahitaezko ezarpena iritsi aurretik hura erabiltzea errazte aldera, xedapen gehigarri bakarrean epe bat ezartzen da zergadunak aukera izan dezan sistema bere borondatez erabiltzeko, haren zehapen araubidearen mende egon gabe. Epe hori 2021eko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta zergadun bakoitzaren nahitaezko ezarpen data iristen denean amaituko da.

Ongi jakinik nolako inpaktu ekonomikoa eskatuko duen egokitzapenak, dela fakturazio terminalen sistema berria ezartzeko, edozein modutakoa izanik ere, dela pertsona fisikoek eta juridikoek gaur egun ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak fakturatzeko erabiltzen dituzten sistema informatikoak ezartzeko, eta pertsona horien artean ahalik eta gehienak sar daitezzen borondatez TicketBAI sistema indarrean jartzeko eta ondorioak izateko finkatu den eguna baino lehen, aldi baterako zerga pizgarriak xedatu dira sozietateen gaineko zergan, establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Hain zuzen ere, 100eko 30eko kenkaria ezartzen da kuotan, eta betekizun horretara egokitzeko egindako gastuek eta inbertsioek erabakiko dute kenkari horren oinarria zein izango den, muga jakin batzuekin; orobat, zergadunak ezarri zaizkien obligazio berriak betetzeko egin behar dituzten kostuak murrizteko balioko du kenkariak.

Bestalde, kontuan izanik bai kenkari hori eta bai txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitala laguntzeko kenkaria, zeina jasota ageri baita maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauan, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurriei buruzkoan, pizgarri bat direla ekipo informatiko eta periferikoak erosteko, foru arau honetan aurreikusitako pizgarritik kanpo uzten dira zergadunek ekipo informatiko eta periferikoen erosketan egindako inbertsio eta gastuak baldin eta aurretik txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria aplikatu badute. Gainera, azken kenkari horren zenbatekoa konputatuko da kenkari honen xede izan daitezkeen inbertsio eta gastuen gehieneko zenbatekoa zehazteko, betiere aurreko paragrafoan aipatutako mugen barruan.

ELGAK egindako gomendioei jarraituz –2013ko txosten horretan eta, duela gutxiago, «Ihes eta iruzur fiskalari heltzeko tresna teknologikoak» (2017) eta «Implementing online cash register: benefits, considerations and guidance» (2019) argitalpenetan– dagokion intentsitatearen arabera zehapen araubidea ezarri da ixteko tresna gisa, sozietateen gaineko zergan, establezimendu iraunkorren errentaren gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ezarritako obligazioak ez

betetzearen ondoriozko arau hausteekin lotuta. Ildo horretan, bi arau hauste eta lau zehapen zehaztu dira.

Lehen arau haustea informazio betebeharra ez betetzea izango da, eta desberdin zehatuko da ez-betetzea orokortua edo noizbehinkakoa den. Bigarren arau haustea, bestalde, ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien euskarri gisa balio duten softwarea eta artxibo informatikoak suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzeko izango da, eta bi zehapen mota hartuko ditu barnean: bata zergadunarentzat, berak jokatu badu horrela, eta beste zehapen bat zergaduna ez den edozein subjektuentzat, softwarearen garatzailea nahiz hirugarren norbait izan, hark ere jokabide horretan esku hartu badu.

1. 2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarena.

(...)

122 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabili beharra.

1. Zerga honetako zergadunak behartuta daude, erregelamendu bidez zehaztuko diren eskakizunen, mugen eta baldintzen arabera, sistema informatiko bat erabiltzera ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztiak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko, jarraian zerrendatutako eskakizunak betez:

a) Ondasunak entregatu eta zerbitzuak ematen direnean, elektronikoki sinatutako fitxategi informatiko bat sortu beharko du eragiketen faktura edo frogagiria jaulki aurretik, eta araudiaren arabera zehaztutako formatua, edukia eta ezaugarriak izan beharko ditu.

Bereziki, beste informazio batzuen artean, honako hauek jaso beharko ditu letra honetan aipatutako fitxategi informatikoak:

a') Eragiketa dokumentatzen duenaren aurreko fakturaren edo frogagiriaren identifikazioa.

b') Egin den eragiketaren fakturaren edo frogagiriaren datuak, babestekoak direnak zainduta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babestu eta 95/46 (EE) Zuzentaraua indargabetzen duenak, 9. artikuluan aurreikusitakoa betez.

c') Hurrengo 2. apartatuan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen sistema informatikoaren edo softwarearen identifikazioa, baita hura garatu duen pertsona edo entitatearena ere.

b) Zerga Administrazioari berehala bidali beharko dio aurreko a) letran xedatutakoaren arabera sortutako fitxategi informatiko bakoitza.

c) Faktura edo frogagiria identifikatzeko kode bat eta «QR» kode bat sartu beharko ditu eragiketaren fakturan edo frogagirian.

Foru arau honen 12. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren entitate salbuetsiak eta irabazi asmorik gabeko entitateen araubidea aplikagarri dutenak –Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan ezarritakoa–, ez dira betebehar horren pean egongo.

Era berean, partzialki salbuetsitako entitateak, foru arau honen 12. artikuluko 2. apartatuan aipatuak, errentak zerga oinarrian integratu beharra dakarten eragiketengatik bakarrik egongo dira betebehar horren pean.

Dena den, aurreko apartatuan aipatutako entitate partzialki salbuetsiek ez dute betebehar hori izango aurreko azken aurreko zergaldian zerga honetan aitortzen aurkeztera behartuta egon ez direnean foru arau honek 126. artikuluan jasotako beharkizunak betetzeagatik.¹

2. Aurreko apartatuan ezarritako obligazioa betetzeko, zergadunek honako hauek erabili beharko dituzte:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako haien esku jartzen duen aplikazio informatikoa, araudiaren arabera ezarritako baldintzen eta mugen barruan, edo

b) Horretarako eraturako erregistroan inskribatuta dagoen software bat. Era berean, erregistro horretan inskribatuta egon eta erantzukizunpeko adierazpena sinatu duen pertsona edo entitate batek garatutakoa izan beharko da.

Letra honetan aipatutako erregistroan, erregelamenduan xedatutako baldintzetan egingo dira inskripzioak, inskripzio aldaketak eta bajak.

Zergadunak berak garatu badu b) letra honetan aipatutako softwarea, hark sinatu beharko du erantzukizunpeko adierazpena eta aipatutako erregistroan inskribatu beharko du softwarea.

3. Erregelamendu bidez, erregela bereziak ezarri ahal izango dira, aurreko 1. apartatuan jasotako obligazioari dagokionez, faktura eragiketen hartzaileek edo hirugarren pertsonak egiten duten kasuetarako.

4. Fakturen edo frogagiriaren hartzaileei, faktura edo frogagiri horiek jaulki dituzten zergapekoek 1. apartatuan adierazi diren obligazioak bete dituzten egiaztatzeko aukera emango die Zerga Administrazioak.

Erregelamendu bidez garatuko da egiaztapen hori nola egingo den.

(...)

¹ Paragrafo hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 2. artikuluko zortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO) eta aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak..

133. artikulua. Arau haustek eta zehapenak.

Hurrengo artikuluan eta foru arau honen gainerako artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, zerga honetan ezartzen diren arau haustek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrek xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

133 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabiltzeko obligazioarekin lotutako arau haustek eta zehapenak.

1. Tributuen arloko arau haustek izango dira:

a) Ez betetzea ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoa erabiltzeko obligazioa, foru arau honetako 122 bis artikuluan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako baldintzei eta eskakizunei jarraikiz.

b) Foru arau honetako 122 bis artikuluan aipatutako sistema informatiko, software, artxibo edo fitxategi informatikoak suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzeari, dela eskuz, dela prozesu informatiko baten bidez.

c)² TicketBAI fitxategiak Zerga Administrazioari geroratuta ez bidaltzea, TicketBAI betebeharrari buruzko araudi erregulatzailaren arabera horretarako jarritako baldintzetan eta epearen barruan, baldin eta aldezturik egiazatu badute sarerako estaldurarik eza eta sarerako sarbiderik eza, eta horretarako ebazpen bat badute.

2. Hauek izango dira aurreko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako arau haustearekin lotutako zehapenak:

a) Oro har, diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 20koa izango da, edo 20.000 eurokoa gutxienez.

Aurreko ekitaldia urte naturala baino txikiagoa izan bada, urtebetera handituko da negozio zifrari dagokion magnitudea.

Jarduera ekonomikoa ekitaldian hasi bada, ekitaldi horri dagokion negozio zifrari erreparatuko zaio, eta ekitaldi hori urtebetetik beherakoa bada, zifra hori kalkulatu da ekitaldi horretako negozio zifrari dagokion magnitudea urtebetera eramanez.

Subjektu arau haustea letra honetan xedatutakoaren arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako arau haustea egin aurreko lau urteetan, diruzko isun proportzional baten

² Letra hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 2. artikuluko bederatzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO) eta aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 30ekoa izango da, eta 30.000 eurokoa gutxienez.

b) Aurreko a) letran xedatutakoa gorabehera, ondasun entrega edo zerbitzu prestazio bati edo batzuei lotuta badago arau haustea, 2.000 euroko diruzko isun finko batekin zehatuko da araua urratu duen eragiketa bakoitza.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondoriozko zehapena ezingo da izan, inola ere, aurreko a) letran xedatutakoa aplikatuz gero aterako litekeena baino handiagoa.

Subjektu arau hauslea letra honetan xedatutakoaren arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako arau haustea egin aurreko lau urteetan, aurreko a) letrako lehen paragrafoan aurreikusitako zehapena ezarriko da.

3. Hauek izango dira aurreko 1. apartatuko b) letran aurreikusitako arau haustearekin lotutako zehapenak:

a) Aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 20ren diruzko isun proportzionala, eta 40.000 eurokoa gutxienez.

Zehapen hori ezingo da ezarri aurreko 2. apartatuko a) letran xedatutako zehapenarekin batera.

Aurreko ekitaldia urte naturala baino txikiagoa izan bada, urtebetera eramango da negozio zifrari dagokion magnitudea.

Jarduera ekonomikoa ekitaldian hasi bada, ekitaldi horri dagokion negozio zifrari erreparatuko zaio, eta ekitaldi hori urtebetetik beherakoa bada, zifra hori kalkulatu da ekitaldi horretako negozio zifrari dagokion magnitudea urtebetera eramanez.

Subjektu arau hauslea a) letra honen arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako arau haustea egin aurreko lau urteetan, diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 30ekoa izango da, eta 60.000 eurokoa gutxienez.

b) Zerga Administrazioak egiaztatzen badu softwarea garatu duen pertsonak edo entitateak edo zergaduna ez den beste edozeinek parte hartu duela aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako suntsipenean, ezabapenean edo manipulazioan, subjektu arau hausletzat hartuko dira parte hartu duten pertsona edo entitate horiek ere, eta haiek guztiak zehatuko dira 40.000 euroko diruzko isun finko batekin.

Parte hartu duen subjektu arau hauslea b) letra honen arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako arau haustea egin aurreko lau urteetan, 60.000 euroko diruzko isun finko batekin zehatuko da.

c) Zergadunak softwarea garatu badu eta, horrekin batera, aurreko 1. apartatuko b) letran aurreikusitako arau haustea egin badu, apartatu honetako a) letran xedatutakoaren arabera zehatuko da arau hauste hori.

Apartatu honen ondorioetarako, pertsona edo entitate batek aurreko 1. zenbakiko b) letran aipatutako suntsipenean, ezabapenean edo manipulazioan parte hartu duela ulertuko da, baldin eta, besteak beste:

- Sistema informatikoa, softwarea, edo artxibo zein fitxategi informatikoak aldatu baditu.
- Sistema informatikoaren edo software, artxibo edo fitxategi informatikoen gaineko kontrola badu edo izan badu nolabait.
- Aipatutako suntsipena, ezabapena edo manipulazioa egiteko sistemak, bitartekoak edo metodoak ipini edo jarri baditu beste pertsona edo entitate batzuen eskura.
- Aipatutako suntsipena, ezabapena edo manipulazioa egiteko jarraibideak adierazi, eman edo erakutsi baditu.
- Berez suntsipen, ezabapen edo manipulaziotzat hartua izateko nahikoa garrantzi izan gabe ere, hark egindako edo egin gabeko zerbait prozesu horren parte izan bada eta, beste pertsona edo entitate batzuek egin edo egin ez dutenarekin batera, horren ondorioa aipatutako suntsipena, ezabaketa edo manipulazioa izan bada.

4.³ Aurreko 1. apartatuko c) letran jasotako arau hausteari lotutako zehapenak diruzko isuna izango dira, artikuluko honen 2. apartatuan xedatutakoa aplikatuzetik ondorioztatzen diren isunen erdiari dagokiona.

5.⁴ Artikulu honetan ezarritako arau hausteak eta zehapenak bateragarriak izango dira martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 206. artikuluan jasotakoekin.

Hala ere, aurreko 2. apartatuan jasotako zehapenetako bat ezartzen denean, ez da bidezkoa izango martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 206.2.b) artikulua bigarren paragrafoan jasotzen duen zehapena ezartzea.

6.⁵ Aurreko 2., 3 eta 4. apartatuetan xedatutakoaren arabera ezarritako zehapenei aplikagarri izango zaie, hala badagokio, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 192. artikulua 5. apartatuan jasotako murriztapena.

(...)

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa,

³ Apartatu hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 3. artikuluko bederetzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO) eta aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak..

⁴ Apartatu hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 3. artikuluko bederetzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO) eta aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

⁵ Apartatu hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 3. artikuluko bederetzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO) eta aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoaren ezarpena sustatzeko kenkaria.

1⁶. Foru arau honen 122 bis artikuluan aipatutako beharkizunak betetzen dituen sistema informatiko bat erabiltzera behartutako zergadunek 2020., 2021., 2022. eta 2023. urteetan egindako inbertsio eta gastuen 100eko 30 kendu ahal izango dute beren kuota osotik, sistema horren ezarpenarekin erlazionatuta badaude. Inbertsio eta gastu horiek honako hauek izan beharko dute:

a) Behar diren ekipoak eta terminalak erostea, baita horiekin lotutako softwarea eta periferikoak ere, foru arau honetako 122 bis artikuluan aipatutako obligazioa bete ahal izateko, instalazio eta ezarpen gastuak ere barne.

b) Foru arau honen 122 bis artikuluko 2. apartatuaren b) letran aipatzen diren ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien inguruko betebeharrak betetzeko behar den softwarea eskuratu, harpidetu, entregatu, eguneratu edo berritzea, instalazio eta ezarpen gastuak ere barne.

c) Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien inguruko betebeharrak betetzeko ezarri behar den sinadura elektronikoko softwarea eskuratu, harpidetu, entregatu, eguneratu edo berritzea, instalazio eta ezarpen gastuak ere barne.

2. Kenkariaren oinarria aurreko 1. apartatuan aipatutako gastu eta inbertsioen zenbatekoaz osatuta egongo da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 67. artikuluko 3. apartatuan jasotakoaren arabera kalkulatu da.

Horrela kalkulatu da kenkariaren oinarria ezingo da handiagoa izan hauek baino:

a) 5.000 euro.

b) 2019an amaitutako azken zergaldiari dagokion negozio zifraren zenbateko garbiaren 100eko 1. Jarduera 2019. urtearen ondoren hasi bada, jarduera hasi den zergaldia hartuko da.

Horretarako, zergaldia urte naturala baino laburragoa denean edo zergaldi horretan jarduera ekonomikoa hasi denean, negozio zifraren zenbateko garbiari dagokion magnitudea urtebetera eramango da.

b) letra honen lehen paragrafoan jasotakoa jasota ere, emaitza hori 500 eurotik beherakoa denean, kenkariaren oinarria bi hauetako txikiena izango da:

a') 2. apartatu honen lehen paragrafoan jasotako kenkariaren oinarria.

b') 500 euro.

⁶ Apartatu honen sarrera martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauaren 2. artikuluko bigarren ordinalaren hogeita bi apartatuak aldatu du. Foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2022/03/14ko GAO) eta aldaketa 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

3. Kenkarirako eskubidea ematen duten gastu eta inbertsioek zergaldi bat baino gehiago hartzen badute, aurreko 2. apartatuan jasotako gehieneko muga bakarra izango da zergaldi guztietarako.

4. Inbertsio eta gastuen kenkaria ezingo da aplikatu foru arau honetako 122 bis artikuluan aurreikusitako obligazioa zergadun bakoitzarentzat exijigarri bihurtu ondoren egindakoak badira.

5. Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria, hain zuzen ere, maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Araua, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurriei buruzkoak, 15. artikuluan jasotakoa, aplikatzen duten zergadunek aurreko 1. apartatuko b) eta c) letretan aipatutako inbertsio eta gastuengatik baino ezingo dute aplikatu kenkari hau, betiere baldin eta eraldaketa digitalerako kenkaria 2020an aplikatu zaien inbertsio eta gastuek ez badute gainditzen kenkariaren oinarriaren muga, 15. artikulua arabera kalkulatu.

Kasu horietan, kenkari honen oinarriak ezin izango du gainditu eragiketa honen emaitza: 2. apartatuaren arabera kalkulaturako kenkariaren oinarriaren muga ken txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkariaren xede izan diren inbertsio eta gastuen zenbatekoa.

6. Kuota nahikoa ez izateagatik egin ez diren kenkariak hurrengo hogeita hamar urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira.

7. Gastu edo inbertsio berarengatik ezingo da kenkaria entitate batean baino gehiagotan aplikatu, ez eta zerga honetan aurreikusitakoez besteko kenkariak entitate berean egin ere. Era berean, kenkari hau ezingo da aplikatu, foru arau honetako 53. artikuluan aipatutako ekintzailatza sustatu eta jarduera produktiboa sendotzeko erreserba berezia gauzatzeko balio izan duenean.

Kenkari hori ez da bateragarria izango inbertsio edo gastu berberekin erlazionatutako beste edozein zerga hobarirekin, salbu eta amortizatzeko askatasunari, amortizazio azkartuari eta baterako amortizaziori dagokienez.

8. Foru arau honetako 14. artikuluan aipatutako ondare sozietateek xedapen honetan jasotako kenkaria aplikatu ahal izango dute.

9. Kenkari honen aplikazioa aukerakoa da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 115. artikuluko 3. apartatuan eta foru arau honen 128. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera egikaritu daiteke.

(...)

2. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua aldatzea.

(...)

22. artikulua. Betebehar erregistralak, formalak eta kontabilitatekoak.

(...)

2. Halaber, behartuta egongo dira Gipuzkoako sozietateen gaineko zergari buruzko zerga araudiaren bitartez entitate egoiliarrei exigitzen zaizkien gainerako betebeharrak erregistral, formal edo kontabilitatekoak betetzera.

(...)

Hamargarren xedapen gehigarria. Zehapen araubidea.

Establezimendu iraunkor baten bitartez errentak lortzen dituzten zergadunei aplikagarria izango zaie urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 133. eta 133 bis artikuluetan xedatutakoa.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Sistema informatiko baten ezarpena sustatzeko kenkaria.

Foru arau honetako 19.4.a) artikuluan aipatutako kenkarietz gain, establezimendu iraunkorren bidez errentak lortzen dituzten zergadunek zilegi izango dute urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, hogeita bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kenkaria aplikatzea.»

3. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua aldatzea.

(...)

112 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabili beharra.

1. Foru arau honetako 24. artikuluan xedatutakoaren arabera jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoak behartuta daude, erregelamendu bidez zehaztuko diren eskakizunen, mugen eta baldintzen barruan, sistema informatiko bat erabiltzera ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztiak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko, jarraian zerrendatutako eskakizunak betez:

a) Ondasunak entregatzean eta zerbitzuak ematean, elektronikoki sinatutako fitxategi informatiko bat sortu beharko du eragiketen faktura edo frogagiria jaulki aurretik, eta erregelamenduaren bidez zehaztutako formatua, edukia eta ezaugarriak izan beharko ditu.

Bereziki, beste informazio batzuen artean, honako hauek jaso beharko ditu letra honetan aipatutako fitxategi informatikoak:

a') Eragiketa dokumentatzen duenaren aurreko fakturaren edo frogagiriaren identifikazioa.

b') Egin den eragiketaren fakturaren edo frogagiriaren datuak, babestekoak direnak zainduta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, Datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babestu eta 95/46 (EE) Zuzentaraua indargabetzen duenak, 9. artikuluan aurreikusitakoa betez.

c') Hurrengo 2. apartatuan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen sistema informatikoaren edo softwarearen identifikazioa, baita hura garatu duen pertsona edo entitatearena ere.

b) Zerga Administrazioari berehala bidali beharko dio aurreko a) letran xedatutakoaren arabera sortutako fitxategi informatiko bakoitza.

c) Faktura edo frogagiria identifikatzeko kode bat eta «QR» kode bat sartu beharko ditu eragiketaren fakturan edo frogagirian.

Halaber, apartatu honetan aurreikusitako obligazioa izango dute errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek eta testamentu ahalordea erabili gabe duten herentziek, jarduera ekonomikoa egiten dituztenean, kideei behar diren etekinak esleitzea ezertan eragotzi gabe.

2. Aurreko apartatuan ezarritako obligazioa betetzeko, zergadunek honako hauek erabili beharko dituzte:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako haien esku jartzen duen aplikazio informatikoa, araudiaren arabera ezarritako baldintzen eta mugen barruan, edo.

b) Horretarako eraturako erregistroan inskribatuta dagoen software bat. Era berean, erregistro horretan inskribatuta egon eta erantzukizunpeko adierazpena sinatu duen pertsona edo entitate batek garatutakoa izan beharko da.

Letra honetan aipatutako erregistroan, erregelamenduaren arabera xedatutako baldintzetan egingo dira inskripzioak, inskripzio aldaketak eta bajak.

Zergadunak berak garatu badu b) letra honetan aipatutako softwarea, hark sinatu beharko du erantzukizunpeko adierazpena eta aipatutako erregistroan inskribatu beharko du softwarea.

3. Erregelamendu bidez, erregela bereziak ezarri ahal izango dira, aurreko 1. apartatuan jasotako obligazioari dagokionez, faktura eragiketen hartzaileek edo hirugarren pertsonak egiten duten kasuetarako.

4. Fakturen edo frogagiriaren hartzaileei, faktura edo frogagiri horiek jaulki dituzten zergapekoek 1. apartatuan adierazi diren obligazioak bete dituzten egiaztatzeko aukera emango die Zerga Administrazioak.

Erregelamendu bidez garatuko da egiaztapen hori nola egingo den.

(...)

117. artikulua. Arau haustek eta zehapenak.

Hurrengo artikuluan eta foru arau honen gainerako artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, zerga honetan ezartzen diren arau haustek Gipuzkoako Lurralde Historikoko

Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

117 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabiltzeko obligazioarekin lotutako arau hausteak eta zehapenak.

1. Tributuen arloko arau hausteak izango dira:

a) Ez betetzea ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoa erabiltzeko obligazioa, foru arau honetako 112 bis artikuluan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako baldintzei eta eskakizunei jarraikiz.

b) Foru arau honetako 112 bis artikuluan aipatutako sistema informatikoa, softwarea edo artxibo zein fitxategi informatikoak suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzeari, dela eskuz, dela prozesu informatiko baten bidez.

2. Hauek izango dira aurreko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako arau haustearekin lotutako zehapenak:

a) Oro har, diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 20koa izango da, edo 20.000 eurokoa gutxienez.

Aurreko ekitaldia urte naturala baino txikiagoa izan bada, urtebetera eramango da negozio zifrari dagokion magnitudea.

Jarduera ekonomikoa ekitaldian hasi bada, ekitaldi horri dagokion negozio zifrari erreparatuko zaio, eta ekitaldi hori urtebetetik beherakoa bada, zifra hori kalkulatu da ekitaldi horretako negozio zifrari dagokion magnitudea urtebetera eramanez.

Subjektu arau hauslea letra honetan xedatutakoaren arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako arau haustea egin aurreko lau urteetan, diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 30koa izango da, eta 30.000 eurokoa gutxienez.

b) Aurreko a) letran xedatutakoa gorabehera, ondasun entrega edo zerbitzu prestazio bati edo batzuei lotuta badago arau haustea, 2.000 euroko diruzko isun finko batekin zehatuko da araua urratu duen eragiketa bakoitza.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik ondorioztatzen den zehapena ezingo da izan, inola ere, aurreko a) letran xedatutakoa aplikatuz gero aterako litekeena baino handiagoa.

Subjektu arau hauslea letra honetan xedatutakoaren arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko a) letran aipatutako arau haustea egin aurreko lau urteetan, aurreko a) letrako lehen paragrafoan aurreikusitako zehapena ezarriko da.

3. Hauek izango dira aurreko 1. apartatuko b) letran aurreikusitako arau haustearekin lotutako zehapenak:

a) Aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 20ren diruzko isun proportzionala, eta 40.000 eurokoa gutxienez.

Zehapen hori ezingo da ezarri aurreko 2. apartatuko a) letran xedatutako zehapenarekin batera.

Aurreko ekitaldia urte naturala baino txikiagoa izan bada, urtebetera eramango da negozio zifrari dagokion magnitudea.

Jarduera ekonomikoa ekitaldian hasi bada, ekitaldi horri dagokion negozio zifrari erreparatuko zaio, eta ekitaldi hori urtebetetik beherakoa bada, zifra hori kalkulatu da ekitaldi horretako negozio zifrari dagokion magnitudea urtebetera eramanez.

Subjektu arau hauslea a) letra honen arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako arau haustea egin aurreko lau urteetan, diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 30ekoa izango da, eta 60.000 eurokoa gutxienez.

b) Zerga administrazioak egiaztatzen badu softwarea garatu duen pertsonak edo entitateak edo 112 bis artikulua arabera obligaziodun ez den beste edozeinek parte hartu duela aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako suntsipenean, ezabapenean edo manipulazioan, subjektu arau hausletzat hartuko dira parte hartu duten pertsona edo entitate horiek ere, eta haiek guztiak zehatuko dira 40.000 euroko diruzko isun finko batekin.

Parte hartu duen subjektu arau hauslea b) letra honen arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako arau haustea egin aurreko lau urteetan, 60.000 euroko diruzko isun finko batekin zehatuko da.

c) Zergadunak softwarea garatu badu eta, horrekin batera, aurreko 1. apartatuko b) letran aurreikusitako arau haustea egin badu, apartatu honetako a) letran xedatutakoaren arabera zehatuko da arau hauste hori.

Apartatu honen ondorioetarako, pertsona edo entitate batek aurreko 1. zenbakiko b) letran aipatutako suntsipenean, ezabapenean edo manipulazioan parte hartu duela ulertuko da, baldin eta, besteak beste:

— Sistema informatikoa, softwarea, edo artxibo zein fitxategi informatikoak aldatu baditu.

— Sistema informatikoaren, softwarearen, edo artxibo zein fitxategi informatikoen gaineko kontrola badu edo izan badu nolabait.

— Aipatutako suntsipena, ezabapena edo manipulazioa egiteko sistemak, bitartekoak edo metodoak ipini edo jarri baditu beste pertsona edo entitate batzuen eskura.

— Aipatutako suntsipena, ezabapena edo manipulazioa egiteko jarraibideak adierazi, eman edo erakutsi baditu.

— Berez suntsipen, ezabapen edo manipulaziotzat hartua izateko nahikoa garrantzi izan gabe ere, hark egindako edo egin gabeko zerbait prozesu horren parte izan bada eta,

beste pertsona edo entitate batzuek egin edo egin ez dutenarekin batera, horren ondorioa aipatutako suntsipena, ezabaketa edo manipulazioa izan bada.

4. Artikulu honetan ezarritako arau haustek eta zehapenak bateragarriak izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 206. artikuluan aurreikusitakoekin.

Hala ere, aurreko 2. apartatuan aurreikusitako zehapenetako bat ezartzen denean, ez da bidezkoa izango martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, 206.2.b) artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitako zehapena ezartzea.

5. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera ezarritako zehapenei aplikagarri izango zaie, hala badagokie, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrek 192.5 artikuluan aurreikusitako murrizketa.

(...)

Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoaren ezarpena sustatzeko kenkaria.

17. 2020ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek zilegi izango dute aplikatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak hogeita bigarren xedapen gehigarrian ezartzen duen kenkaria, bertan ezarrita dauden baldintzen eta eskakizunen arabera, eta xedapen gehigarri honetan jasotako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria aplikatuko zaio zergadunaren jarduera ekonomikoen etekinek osatutako zerga oinarri orokorrean zerga honetan dagokion kuota osoari.

3⁸.

4. Kenkari honen aplikazioa aukerakoa da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 115. artikuluko 3. apartatuan eta foru arau honen 104. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera baliatu daiteke.

(...)

⁷ Apartatu hau martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauaren 1. artikuluko bigarren ordinalaren hogeita zazpi. apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru Arauak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2022/03/14ko GAO) eta aldaketak 2022ko urtariletik 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

⁸ Apartatu hau irailaren 7ko 5/2021 Foru Dekretu-Arauaren azken xedapenetako lehenaren bi. apartatuak edukirik gabe uzten du. Aipatutako foru dekretu-arauak TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkariaren aurrerakin likido bat ezartzen du. Foru dekretu-arauak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2021/09/08ko GAO).

4. 3/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena

(...)

Xedapen gehigarri bakarra. Foru arau honetan aurreikusitako tresna teknologikoak erabiltzeko borondatezko epea.

1. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eta foru arau honetan aurreikusitako tresna teknologikoak erabiltzea zergadun bakoitzarentzat nahitaezko bihurtzen den egunera arte, sozietateen gaineko zergaren zergadunek, establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek bitarte horretako zati batean edo tarte osoan egindako ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoak prestatu eta bidaltzeko erabili ahal izango dituzte beren borondatez tresna teknologiko horiek, baita horiek erabiltzeari utzi ere.

2. Denbora horretan tresna horiek borondatez erabiltzea ez da foru arau honetan aurreikusitako arau-hausteen eta zehapenen araubideen mende egongo.

Era berean, borondatezko erabilera hori edo haren amaiera ez zaio alde zurretik jakinarazi beharko Zerga Administrazioari.

Lehen xedapen iragankorra. Foru arau honetan aurreikusten diren lanabes teknologikoak erabiltzeko obligazioak ezartzeko egutegia.

Foru arau honek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 122 bis artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 112 bis artikuluan ezartzen dituen betebeharrak exijituko dira jarduera sektore bakoitzerako erregelamenduaren bidez definituko den ezarpen egutegiaren arabera.

Bigarren xedapen iragankorra. Fakturazioaren kontrolerako euskarri gisa balio duten programa edo artxibo informatikoak eta erabilitako kodifikazio sistemak suntsitu, ezabatu edo manipulatzeko dakarren arau haustearen araubide iragankorra.

Foru arau honen 4. artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikagarria izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 205.2.c) artikuluko azken paragrafoa, foru arau hau indarrean jarri aurretik zeukan idazkeran, bi foru arau hauek adierazitako artikuluetan jasotzen dituzten obligazioak zergadun bakoitzarentzat exigigarri bihurtu aurretik egin diren arau hauste guztietarako: urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 122 bis artikuluan, edo urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 112 bis artikuluan, kasuan-kasuan zer dagokion.

ALDAKETAK

Zerrenda honetan, aipatutako arau-laburpenak izan dituzten aldaketak jasotzen dira.

• 4/2021 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 27koa, TicketBAI betebeharraren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurriei buruzkoa. (2021/07/28ko GAO).

3. artikulua Gipuzkoako azken paragrafo bat gehitzen dio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 122 bis artikulua 1. apartatuari.

5/2021 Foru Dekretu-Araua, irailaren 7koa, TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkarien aurrerakin likido bat ezartzen duena (2021/09/08ko GAO).

- Azken xedapenetako lehenak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren agindu hauek aldatzen ditu:
 - Bat. apartatuak hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren bat. Apartatua.
 - Bi. apartatuak hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua edukirik gabe uzten du.
- Azken xedapenetako bigarrenak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren sarrera.

1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena. (2022/03/13ko GAO).

- 1. artikuluko bigarren ordinalaren hogeita zazpi apartatuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatua aldatzen du.
- 2. artikuluko bigarren ordinalaren hogeita bi apartatuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren sarrera aldatzen du.

1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena (2023/01/23ko GAO).

- Bere 3. artikuluko zortzi apartatuak urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko

Zergarena) 122 bis artikuluko 1. Apartatuaren azken paragrafoa aldatzen du.

- Bere 3. artikuluko bederatzi apartatuak urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarena) 133 bis artikuluen 1. apartatuari c) letra gehitzen dio, 4. eta 5. apartatuak aldatzen ditu eta 6. apartatu bat gehitzen du.